


# Auzoz auzo

## Intxaurreondo




### Ez al dira zebrabide gehiegi?

Sagastieder parkea zeharkatzea arriskutsua izan daiteke. Izan ere, errepideak bitan zatitzen du parkea. Parkearen alde batetik bestera joateko bi zebrabide egon dira urtetan. Auzo elkartekoek, ordea, bi zebrabideen artean galtzadarriak jartzea eskatu izan dute, parkearen inguruan autoek abiadura moteldu dezaten. Udalak, hala ere, auzotarrek proposaturiko galtzadarrien orde, beste zebrabide bat jarri zuen duela urte erdi inguru. Beraz, gaur egun hiru zebrabide daude, ia-ia bata bestearen segidan. Auzotar askoren ustez, ez da oso zentzukoa Udalak hartutako erabakia. Bertatik igarotzen diren 9. eta 29. autobus zerbitzuetako zenbait gidari ere kexu dira, oso metro gutxitan hiru aldiz moteldu behar izaten baitute abiadura.

### Zaborrontzi arriskutsua

Argazkian ikus daitekeenez, Baratzategi pasealekua-ren eta Otxoki kalearen arteko zaborrontzia ez dago espaloiren ondoan. Hori dela eta, errepidearen bestaldera joan nahi duten oinezkoek ia-ia errepide erdira atera behar izaten dute, Baratzategin behera autorik edota txirindularirik datorren ikusteko.




### Erramun Martikorena Larrotxenen

Astelehenean, maiatzak 5, Lagunekin Kantari egitasmoaren harira, Erramun Martikorena kantari baigorritarra Larrotxene kultur etxean ariko da. Emanaldia 20.00etan hasiko da.

## Aiete

### Ikastaroak eta zine emanaldiak

Datozen asteotan, Lantxabe auzo elkartearen ekimenez, euskal dantza eta kantu ikastaroak eta zine emanaldiak izango dira. Euskal kantu ikastaroa doan izango da, eta Gurutzeaga elizan egingo da maiatzaren 9an eta 23an eta ekainaren 6an eta 20an, 20.00etatik 21.30era bitartean. Euskal dantza ikastaroa, bestalde, Axular Lizeoan eskainiko dute, baina zehazteke dago zein egunetan izango den. Ikastaro honetan izena emateko, bederatzi euro ordaindu beharko dira, eta arin-arin edota fandangoa nola dantzatu ikasi ahal izango da. Ikastarootan parte hartu nahi duenak 943218971 telefono zenbakira deitu besterik ez du (08.00etatik 09.00etara eta 15.00etatik 17.30era). Bestalde, Lantxabekoek haurrentzako, gazteentzako eta helduentzako zenbait film pantailaratu-tuko dituzte datozen asteotan. Emanaldiak San Alberto Magno Ikastetxe Alemanjarrean izango dira.



### Zebrabideak Bera-Beran

Udal Gobernu Batzordeak Bera-Beran zebrabideak jartzea onartu zuen joan den astean. Zebrabide hauek, ohikoak izan beharrean, errepidea bera baino zentimetro batzuk gorago jartzen direnetakoak dira, ibilgailuek abiadura murriztu dezaten. Mota honetako zebrabideak beste zenbait lekutan jarri dituzte; Konbako pasealekuko La Perla aurrean, adibidez.

